



**2024KO UZTAILAREN 15EKO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita lauko uztailaren 15ean, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2024ko uztailaren 1ean egindako ohiko bilkurako akta, eta idatzita dagoen moduan onartu da.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2024ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 55 zenbakidun zerrenda, LAUROGEITA HIRU MILA HIRUREHUN ETA LAU euro ETA BERROGEITA BERDERATZI zentimokoa (83.304,49 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 20-11-07, 671, 22-11-10 eta 20-11-06 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzua handitzea asteen 18 orduetik 30 ordura, beraien osasun egoera okertu delako. Onuradunen ekarpena % 100ekoa izango da.
- 24-11-01 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzua murriztea onuradunak eskatuta asteen 15 orduetik 6 ordura ekainaren 26tik aurrera, onuradunaren osasun egoerak hobera egin duelako. Onuradunaren ekarpena % 100ekoa izango da.



- 21-11-04 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzua handitzea, astean 10 orduetik 18 ordura, ekainaren 26tik aurrera, onuradunak zainketa gehiago behar duelako. Erabiltzailearen ekarpena % 61ekoa izango da.
- 24-11-07 zenbakidun esped.: etxeko laguntzan baja ematea uztailaren 1ean heriotzagarik.
- 24-11-10 zenbakidun esped.: etxeko laguntzan alta ematea uztailaren 8tik aurrera, astelehentik ostiralera egunero ordu bete garbitasun pertsonalerako. Onuradunaren ekarpena % 100ekoa izango da.
- 24-11-11 zenbakidun esped.: etxeko laguntzan alta ematea abuztuaren 5etik aurrera, astean 8 orduz, etxeko garbiketa eta laguntza pertsonalerako. Onuradunaren ekarpena % 100ekoa izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 23-01-007 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 100,50 €-ko dirulaguntza ematetik, 114 €-ko dirulaguntza ematera pasatzea ekainetik abendura eta alokairu gastuetarako hilean 167,50 €-ko dirulaguntza ematetik, 190 €-ko dirulaguntza ematera pasatzea ekainetik abendura. Eman daitekeenaren % 67tik % 76ra igotzen da, bizikidetzat unitateko diru sarreretan aldaketak egon direlako.
- 23-01-010 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 42,44 €-ko dirulaguntza ematea uztailetik abendura. Eman daitekeenaren % 100 da.
- 24-01-011 zenbakidun esped.: lehen mailako premietarako 150 €-ko dirulaguntza ematea ekainean. Eman daitekeenaren % 100 da.

Familia laguntzak.-

- 24-15-01 zenbakidun esped.: hasierako ikerketa eta ebaluazio txostena egitea. Horretarako aurrekontua 1.430 €koa da.

Joxemiel Barandiaran Udal kiroldegiko bazkidetza eta jarduerengatik ordaindu beharreko tasak ordaintzeko laguntza ematea.-

- 24-23-07 zenbakidun esped.: Joxemiel Barandiaran Udal kiroldegiko urteko bazkidetza kuota ordaintzeko 246,27 €-ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100 da.
- 24-23-08 zenbakidun esped.: Joxemiel Barandiaran Udal kiroldegiko udako igerilekuko bono familiarra ordaintzeko 89,55 €-ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100 da.
- 24-23-09 zenbakidun esped.: Joxemiel Barandiaran Udal kiroldegiko urteko bazkidetza kuota ordaintzeko 246,27 €-ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100 da.





Kultura eta denbora libreko ikastaroengatik ordaindu beharreko tasak ordaintzeko laguntzak ematea.-

- 24-23-02 zenbakidun esped.: apirila, maiatza eta ekaineko marrazketa ikastaroa ordaintzeko 84 €-ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100 da.
- 24-23-03 zenbakidun esped.:
 - o Apirila, maiatza eta ekaineko josteko ikastaroa ordaintzeko 108 €-ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100 da.
 - o Apirila, maiatza eta ekaineko zunba ikastaroa ordaintzeko 72 €-ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100 da.

IV.- EUSKARA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Euskara batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabaki hauek hartu ditu:

Euskara ikasten ari direnei.-

2023/2024 ikasturtean euskara ikasten bukatu duten ikasleei dirulaguntzaren ordainketa egitea baldintzak bete dituztelako. Hiru ikasle izan dira eta emango zaien kopurua guztira 860,52 €-koa da.

Ordainketa partida honetatik egingo da: aurrekontuaren 1 480.01.335.00 partidatik.

V.- GAZTERIA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Gazteria arloko zinegotziak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hau hartu du:

Zagupe Astialdi Taldeari.-

2024ko udalekuetako gastuei aurre egiteko, 2.490 €-ko dirulaguntza ematea.

Ordainketa aurrekontuaren 1 481.01.337.20 partidatik egingo da.

VI.- EKONOMIA SUSTAPENA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Ekonomia Sustapeneko Batzordetik, merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza jardueri dirulaguntzak emateko egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

-Merkatariei erosketa bonoengatik.-



Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2024ko maiatzean martxan jarritako erosketa bonoen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat merkatarik beraien saltokitan jasotako bonoak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien merkatariei bosgarren ordainketa egitea:

MERKATARIA	GUZTIRA	DIRU LAGUNTZA
IDOIA MATXINANDIARENA (A.BELEN)	100,00 €	25,00 €
GUZTIRA	100,00 €	25,00 €

Dirulaguntzari dagokion zatiaren ordainketa, Udal aurrekontuaren 1 471.02.433.01 partidatik egingo da.

VII.- LANDA EREMUA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Landa Eremuko batzordetik baserritar ekoizleei dirulaguntzak emateko egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

- Baserritar ekoizleei bonoengatik.-

Lazkaoko baserritar ekoizleen sustapenerako Lazkaoko Udalak 2024ko maiatzean martxan jarritako erosketa bonuen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat baserritarrek jasotako bonoak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien baserritarrei lehen ordainketa egitea, ondorengo xehetasunaren arabera:

EKOIZLEA	GUZTIRA	DIRU LAGUNTZA
IKER SUKIA MESAS	735 €	315 €
GUZTIRA	735 €	315 €

Dirulaguntzari dagokion zatiaren ordainketa, aurrekontuaren 1 471.02.433.01 partidatik egingo da.

VIII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez da galderarik egon.

IX.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta hogeita bost direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.

